

Bilbo, 2011ko uztaiak 18

Lankide estimatua:

Aurreikuspenen arabera, laster Eusko Jurlaritzak **Doako Justiziaren Dekretu** berria emango du, 1996tik indarrean dagoena ordeztuz.

Dekretuaren proiektua alegazioen aldian dagoen arren, 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzea aurreikusita dagoenez, gure ustez komenigarria da arauketa horren ildo nagusien berri ematea, bertara bildutako aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuta.

Dekretura bildutako aldaketek funtzionamendu-sistema zein ekonomia-araubidea ukitzen dituzte. Aldaketa horien ildo nagusiak jarraian adieraziko ditugu, baina alderdietako batzuk behin betiko aldarrikatu aurretik alda daitezke:

- Lehenengo berrikuntza moduan, ordainketak txandetan zatitzea ezarri da. Modu horretan, prozedura batean bi berrespen parte egin beharko dira, bata demanda edo kalifikazioa aurkeztean (%75) eta bestea ikustaldira joatean (%25). Beste bat ezarri da apelazioak egiten diren kasurako.

- Gai guztiak ordaintzea posible izateko, beharrezkoa izango da Batzordeak edo, hala denean, epaitegiak doako justizia aitortuta izatea.

- Gai penal gehienetan berrespen parte aurreratu ahal izateko, gaur egun gertatzen den moduan, ez da doako laguntza juridikoa izapidetu beharko, baina izendapena komunikatzeko partearekin batera epaitutakoak bitartekorik ez duela adierazteko agiria egin behar du legelariak berak, bezeroaren txirotasun zantzuekin.

- Zenbait gai penaletarako (bide-segurtasunaren aurkako delituak, kereilak eta adingabeak), eta atzerritartasun gaietarako, kanporatzearen eta etxeko indarkeriaren kasuan izan ezik, doako laguntza juridikoa izapidetzeko beharra ezarri da.

- Doako laguntza juridikoa ematen ez den kasuetan baina legelariak esku hartzea beharrezkoa izan denean, kopuru batzuk kobratzeko bermea ezarri da, legelariak zenbait betekizun beteta, betiere, bezeroari kobratzea lortu ez denean.

- Eskatzaileak abokatua askatasunez izendatzea ezarri da gai guztietan, gai penaletan eta VD delakoetan izan ezik. Hala ere, askatasun hori bi urterik behin jardun jakin batzuetara mugatuta dago, espezialitatearen eta barruti judizialaren arabera.

- Berrespen partearen izapidetza hiru hileko epean egin beharko da, hori eragin duen jardunetik zenbatzen hasita.

- Informazio-fluxua hobetzeko, bazkunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean etengabeko komunikazio informatikoa ezarri da, hau da, besteak beste, bazkunean bitarteko telematikoak erabiliz profesionalek egindako jardun guztiak aurkeztu beharko dira: bertaratze parteak, izendapenaren komunikazioa eta berrespen parteak. Data horretatik aurrera bazkuneko sistema informatikoan zuzenean egin beharko dira, gure webaren gune pribatutik, sinadura elektronikoaren sistema erabiliz.

- Atxilotuari laguntzeko zerbitzuari dagokionez, ez da aldaketa handirik egin, baina barruti judizialtako batean atxilotuta ez dauden egotziak artatzeko pertsona kopurua handitu beharko da. Hori dela eta, guardiak berregituratu beharko ditugu apur bat.

- Amaitzeko, bazkunek egin beharreko likidazioa eta Gobernuak egin beharreko kasuan kasuko ordainketa hiru hilekoa izango da, sei hilekoa izan beharrean, orain arte bezala.

Horiek dira Dekretuaren proiektuko ildo nagusiak. Aurretik esan dugunez, bazkunek alegazioak aurkezteko fasean dago, eta testuan hobetu edo desagertu behar diren alderdietarako alternatibak eskaintzen dira.

Dekretua irmoa denean eta informazio gehiago daukagunean jakinaraziko dizuegu. Hala ere, arauketa berri honek txandarako dituen aldaketen garrantzia kontuan hartuta, beharrezko informazio-hitzaldiak antolatu eta azalpen-agiriak egingo ditugu elkargokide guztiei trebakuntza eta informazio egokia eskaintzeko.

JAVIER BOLADO
IDAZKARIA